

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

IPUINAREN MOLDAKETA BIZKAIERARA ETA BERE ERABILERA AHOZKO KOMUNIKAZIOA LANTZEKO HAUR HEZKUNTZAN

Egilea: Udane Beaskoetxea Elezgarai.

Zuzendaria: Mikel Iruskieta Quintian.

Leioan, 2018ko maiatzaren 30ean

A U R K I B I D E A

ABSTRACTA	4
1. Sarrera.....	5
2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	10
2.1. Hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna. Kontzeptua eta garapenean laguntzea .	10
2.2. Ipuina bizkaierara moldatzeko irizpideak.....	11
2.2.1. Sintaxia	12
2.2.2. Hiztegia.....	16
3. Metodologia	17
3.1. Ipuinaren moldaketa	17
3.2. Esku-hartzea eta datu-bilketa	17
3.2.1. Haurren euskalkiaren jabekuntza aktibatu eta zehaztea	18
3.2.2. Ipuinaren sekuentziari buruzko hipotesiak eraikitzea	19
3.2.3. Bitarteko jarduera: Ipuinaren irakurketa eta markaketa	21
3.2.4. Eskema berriak eraikitzea.....	23
3.2.5. Ahozko adierazpenerako ataza	23
4. Emaitzak	24
4.1. Haurren euskalkiaren jabekuntza aktibatu eta zehaztea	25
4.2. Ipuinaren sekuentziari buruzko hipotesiak eraikitzea	26
4.3. Eskema berriak eraikitzea.....	27
4.4. Ahozko adierazpenerako ataza	28
5. Ondorioak	29
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	31
E R A N S K I N A K.....	33
1. ERANSKINA: MARTIN TXIKI ETA BASAJAUNAK IPUINAREN MOLDAKETA	33
2. ERANSKINA: AURREZAGUTZAK ZEHAZTEKO JARDUERAN ERABILTZEKO IRUDIAK	37
3. ERANSKINA: HIZKUNTZAREN ARLOAN EZAGUTZAK ZEHAZTEKO FITXA.....	42

4. ERANSKINA: HIPOTESIAK EGITEKO FITXA: NARRAZIOAREN SEKUENTZIA.....	44
5. ERANSKINA: HIZKUNTZA- ETA KOMUNIKAZIO-GAITASUNAREN AURREKO ETA ONDORENGO EBALUAZIOA EGITEKO FITXA	45
6. ERANSKINA: MARKAKETA SISTEMA.....	46
7. ERANSKINA: MARTIN TXIKI ETA BASAJAUNAK IPUINAREN TESTUA IRAKURKETA OZENA EGITEKO MARKAKETA SISTEMAREKIN.....	47
MARTIN TXIKI ETA BASAJAUNAK (EUSKARA BATUA)	47
MARTIN TXIKI ETA BASAJAUNAK (BIZKAIERAZ).....	53
8. ERANSKINA: IRAKURKETAN ERABILITAKO KEINUAK	60
9. ERANSKINA: MARTIN TXIKI GARI PILOAREN BESTE ALDERA SALTO EGITEN.....	81
10. ERANSKINA: HIZKUNTZAREN ARLOAN AURREZAGUTZAK ZEHAZTEKO FITXA OSATUA.....	82
11. ERANSKINA: HIPOTESIAK EGITEKO FITXA OSATUAK	84
12. ERANSKINA: HIZKUNTZA- ETA KOMUNIKAZIO-GAITASUNAREN AURREKO ETA ONDORENGO EBALUAZIOA EGITEKO FITXA OSATUA..	93
13. ERANSKINA: HIZKUNTZAREN ARLOAN ERAIKITAKO EZAGUTZAK ZEHAZTEKO FITXA OSATUA.....	94

IPUINAREN MOLDAKETA BIZKAIERARA ETA BERE ERABILERA AHOZKO KOMUNIKAZIOA LANTZEKO HAUR HEZKUNTZAN

Udane Beaskoetxea Elezgarai
UPV/EHU

ABSTRACTA

Lan honetan *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuinaren irakurketa ozen esanguratsuak talde zehatz bateko haurren hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunean izan duen eragin zuzena aztertu da, beren beregi diseinatutako esku-hartze eta ikerketa baten bidez. Zehatzago, ipuina bizkaierara moldatu da eta Mungia Legarda HLHI ikastetxeko Haur Hezkuntzako 4 urteko gela batean irakurri da, horrek haurrek duten euskalkiaren ezagutzan eta egiten duten erabileran duen eragina aztertzeke. Esku-hartzea egiteko lan moldea konstruktibismoan oinarritu da. Beraz, haurrek euskalkiaren zein jabeakuntza duten zehazteko aurretiazko jarduerak egin dira. Ondoren, ipuin horren irakurketa esanguratsua burutu da euskara batuan eta mendebaldeko euskalkian, horren osteko jardueren bidez, euskalkian irakurtzeak haur ezberdinen ahozko komunikazio-gaitasunean izan duen eragina neurtzeko. Orokorrean ondorioztatu da euskalkian egindako irakurketak gaitasun hori osatu duela, nahiz eta euren ama-hizkuntzaren arabera emaitza ezberdinak eman diren.

Ahozko komunikazio-gaitasuna, irakurketa esanguratsua, konstruktibismoa, ipuina, euskalkia

En este trabajo se ha analizado el efecto directo que tiene la lectura oral significativa del cuento *Martin Txiki eta Basajaunak* en el desarrollo de las capacidades lingüísticas y comunicativas de un determinado grupo de niños y niñas mediante una intervención y una investigación diseñadas para ello. Concretamente, se ha adaptado el cuento al dialecto occidental y se ha leído en una clase de 4 años de Educación Infantil del CEIP Legarda de Mungia para analizar su efecto en el conocimiento y uso del dialecto. La metodología utilizada para la intervención está basada en el constructivismo. Por lo tanto, se han realizado actividades previas que han ayudado a determinar los conocimientos que sobre el dialecto tienen las y los niños. Posteriormente, se ha procedido a la lectura significativa del citado cuento utilizando el euskera batua y el dialecto occidental. En las actividades de investigación, se han medido las consecuencias del uso del dialecto en el desarrollo de la capacidad comunicativa oral del alumnado. En general, se ha enriquecido su capacidad aunque se han obtenido diferentes resultados dependiendo de su lengua materna.

Capacidad comunicativa oral, lectura significativa, constructivismo, cuento, dialecto

In this work we designed an intervention and investigation to analyze the direct effects in the development of children's linguistic and communicative skills when we read aloud the story called *Martin Txiki eta Basajaunak*. In particular, we modified the story to the occidental dialect and read it in one 4 years-old class of pre-school in the college Legarda of Mungia, in order to analyze the effects in children's knowledge and use of the dialect. The methodology used in the intervention was based on constructivism. Therefore, we conducted previous activities which would help us consider children's knowledge about this dialect. Afterwards, the story was read aloud both in *batua* (unified Basque) and in the occidental dialect. Finally, subsequent activities were carried out in order to weigh the consequences of using the dialect in children's oral communicative skills. Overall, the use of the dialect developed those skills, even if the results changed depending on their mother language.

Oral communicative skills, meaningful reading, constructivism, story, dialect

1. Sarrera

Gaur egun, salbuespenak-salbuespen, euskara batuan daude Bizkaiko ikastetxeetan erabiltzen diren material didaktikoa eta literatura-irakurgaiak. Euskara hori da, beraz, hezkuntza-sistemaren eremu curricularraren eta lantzen den hizkuntza idatziaren ardatz. Hala ere, euskara bateratu hori sortu zenetik, ahozko hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunen lanketa euskara horretara zabaltzeaz gain tokiko hizkuntzara, hau da, euskalkira, hedatzearen aldeko ahaleginak egin dira; kasu honetan mendebaldeko euskalkira (bizkaierara) eta zehatzago, Mungialdeak berezko duen Bizkaiko Ipar-Sartaldeko euskarara, hain zuzen ere. Lan hau Mungiako Legarda HLHI ikastetxean eta bertako euskalkia lantzeko egin da. Hala ere, egin den lanaren metodologiak balioko luke edozein euskalki landu nahi duen irakaslearentzat ere.

237/2015 DEKRETUAK, abenduaren 22koak, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak berak ere horren alde egin du. Curriculumeko hasierako xedapenetan haurrek familiatik dakarten hizkuntzari arreta berezia jartzeko beharra aipatzen da, hizkuntza-konpetentzia guztiak biltzen dituen hizkuntza-multzoa garatzeko helburua dagoela adieraziz. Familiatik dakarten hizkuntza horien artean, euskalkia ala tokian tokiko hizkuntza barneratuta dagoela ulertzen dugu, are gehiago, *nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremuan*, bigarren zikloko edukien artean beren-beregi aurreikusten denean “hizkuntzak eta dialektoak erabiltzeko interesa izatea eta haiek begirunez begiratzea”. Eduki hori indar handiagoz landu beharko da, ingurunearen baldintza soziolinguistikoek hala eskatzen dutenean (9. artikulua).

Ez da Dekretu hau euskalkia lantzearen alde agertzen den bakarra. Maiaren eta Larrearen (2008) aburuz, euskara batua eta euskalkiaren arteko kontraktasun fase baten ostean, gaur egun, bien arteko osagarritasunaren aldeko ideia gailendu da, biek komunikazio-gaitasunaren garapenean laguntzen baitute. Osagarritasun hori hezkuntzan ere islatu beharra dago. Hala adierazi zuten Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzak 1982ko adierazpen banatan¹.

Gaur egun, Maiaren eta Larrearen (2008) iritziz, euskara batuari eta euskalkiari euren erabil-esparru bereziak bilatu nahi zaizkie. Era berean, Elorduik eta Maiak (2002) diote hizkuntzaren ulertzeko moduan, euskara batuak eta euskalkiak funtzio ezberdinak

¹ 1982ko urriaren 22ko *Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan* izeneko adierazpena eta 1982ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren adierazpena, hurrenez hurren.

betetzen dituztela komunikazio testuinguruaren arabera eta, hortaz, bakoitza erregistro ezberdinetan erabiltzeko modukoa dela uler daiteke, norekin mintzatzen garen eta testuingurua zein den kontuan hartuta. Euskara batua lantzea beharrezkoa da, alderdi guztietako euskaldunok elkar ulertzeko eta edozein gairi buruz hitz egiteko gai izateko eta euskalkia, aldiz, guraso eta seme-alaben arteko transmisioa sendotzeko, hizkuntza sena eta sormena indartzeko eta euskara osoagoa, zuzenagoa eta indartsuagoa eraikitzeko (Maia eta Larrea, 2008). Nazioartean ere hizkuntza-barietateak onartzen dira, alde batetik, estandarra ulermenaren berme gisa eta, bestetik, aldarazpenak komunitateen nortasunaren adierazpen gisa (Crystal, 2003).


Aurreko guztiari gehitu behar zaio komeni dela eskola inguruan txertatua egotea eta, beraz, inguru horretako errealitate soziolinguistikoa ere kontuan hartzea. Maiak eta Larreak (2008) diote, ikastetxeko eta ikasgelako hizkuntza-politika euskalkiduna ezartzeko erabakigarriak direla, alde batetik, eskualdean euskara bizkorra izatea eta bestetik, bertan euskalkia ezagutzea. Horren ondorio zuzena da, ingurune erdaldunean (ingurunetzat ulertuta, eskualdea, herria, ikastetxea eta azkenik ikasgela) dauden kasuetan, egokiena ikastetxeak euskara batuaren² aldeko hautua egitea dela. Kontrara, ingurunea euskalkiduna den kasuetan, euskara batua eta euskalkia mantentzea da zuzenena, horretarako proportzio kritikoa³ betetzen denean.

Lan hau Mungiako Legarda HLHI ikastetxean egin da. Bertako ingurune soziolinguistikoaren adierazleak zeintzuk diren ezagutzeko, lehenengo eta behin herriaren ezaugarriak aipatuko dira. Herriko euskararen bizkortasunari buruzko datuak jaso dira Mungiako Udalak eta Emun Zerbitzuak (2017) egindako Euskara Foroei buruzko txostenean. Datu horietan ikus daiteke, herritarren % 53,2k euskaraz hitz egiten jakin arren (EUSTATEk 2011an argitaratutako datuak), erabilerari txikiagoa dela, % 28 hain zuzen ere⁴. 1. irudian jaso dira, alde batetik, aipatu diren euskara gaitasunari buruzko datuen portzentajeak eta bestetik, euskararen erabilerari buruzko portzentajeak erakusten dituzten grafikoak:

² Erregistro formala eta ez-formala lantzea komeni da aukera honen kasuan.

³ Maiarentzat eta Larrearentzat (2008) 3 eta 6 urte bitarteko haurren ikasgelen kasuan ikasleen %20-40 euskaldunak direnean proportzio kritikoa ematen da. Hortik aurrera euskalkia izan daiteke ikastetxean erabiltzen den hizkuntza eremu curricularrean. Baina ez da eskoletan proposamen hori arnas-guneetan ere betetzen.

⁴ Ohar bedi ezagutzaren eta erabileraren datuei buruzko grafikoetako datek lau urteko aldea dutela.



1. irudia: Mungiako euskararen bizkortasunari buruzko datuak

Herrian dagoen euskararen aldaerari dagokionez, Zuazok eta Goitik (2017) 2011ko EUSTATEk argitaratutako datuak jasotzen dituzte euren liburuan eta horietan argi geratzen da 8.612 euskaldunetatik 5.806k dutela euskara lehen hizkuntzatzat. Gainera, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) euskararen erabilerari buruzko atlasa argitaratu du eta horretan adierazten da 1981 eta 2011 urteen artean lehen hizkuntza euskara duten biztanleen kopuruak % 21,3ko bilakaera negatiboa izan duela. Egoera horrek indartu egiten du euskalkia lantzeko beharra.

Herriko errealitateaz gain, Legarda HLHI ikastetxean ez dago Hizkuntza Proiekturik, baina eremu curricularrean erabiltzen den hizkuntza euskara batua da. Hala ere, ahozko komunikazioan irakasleek bizkaiera erabiltzen dute haurrekin, euretariko asko eskualdekoak izanik. Horrez gain, egin berri dute Ulibarri ikastetxeen hizkuntza normalkuntzaren gaineko 2017-2018 programari dagokion diagnostia eta horretan ageri da, eskolako ikasleen % 31,82k euskara duela ama-hizkuntzatzat. Esku-hartzea egingo den lau urteko ikasgelan 21 haur daude. Euretatik 14k (% 66,67) erdara, 4k (% 19,05) euskara batua eta 3k (% 14,29) eskualdeko euskalkia dute ama-hizkuntzatzat. Hortaz, ikasgela honen kasuan, aurretiaz aipatutako euskalkia presente egoteko proportzio kritikoa ozta-ozta ematen da.

Aipatutako datuetatik ondoriozta dezakegu, euskarak duen bizkortasuna eta euskalkiaren presentzia baxuagoa dela azken urteotan herrian. Hala ere, Mungian, ikastetxean eta ikasgelan bada euskalkiduna den lagina oraindik, eta hizkuntza-aldaera hori momentu zehatzetan lantzea komeni dela uste dugu, bai galdu ez dadin, bai haurrek horien aldeko sena indartu dezaten. Lanketa bera egitea komeni da hizkera informalaren kasuan ere, euskara batuaren kasuan egiten den bezala, haurrak bizkaieraz ere erregistro hori erabiltzeko gai izan daitezen.

Ez da trabarik gabeko helburua, ordea. Hasteko, hezkuntzan indarrean dagoen lan eskaintza publikoaren eta ordezkapenen sistemak eragindako mugikortasunak zail egiten du, kasuko irakasleak tokian tokiko herriko hizkera hori ezagutzea. Horren aurrean, Maiak eta Larreak (2008) irakasleari besteak beste euskalkia ikasteko ahalegina eta errespetuzko jarrera eskatzen dizkiote.

Bigarren traba bat ere badago. Maiak (2001) aipatzen du, merkatuaren baldintzek gaitz egin ohi dutela euskalkian eginiko materialak lortzea eta erabiltzea, arreta berezia jarriz fikziozko lanetan eta irakurgai arruntetan. Horren ondorioa da eredu estandarrerara, euskara batura, jotzea. Baina, irakasleak eskura duen materiala egokitu dezake euskalkira, nahiz eta zenbait kasutan horrek aholkularitza eskatzen duen. Lan gutxi egin da gai honen inguruan eta horretarako bidea Ikas Elkarrek Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako argitaratutako material didaktiko digitalek⁵ zabaltzen duten arren, lan hau dagoen hutsune hori betetzera dator hein batean.

Lan honen helburu orokorra da haurren ahozko hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunaren garapenean laguntzea, horretarako Haur Hezkuntzako lau urteko gela batean ezarriko den eta euskalkiari arreta berezia eskainiko dion esku-hartzea diseinatuz. Helburu hori betetzeko, haurrei *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuina modu esanguratsuan irakurriko zaie, euskara batuan lehenengo eta eskualdeko euskalkian ondoren⁶. Hortaz, helburu orokor horrek azpi-helburu hirukoitza hartzen du barnean:

- a) Ipuinen irakurketa esanguratsuak haurren ahozko komunikazio gaitasunaren garapenerako baliagarritasunik duen aztertzea.
- b) Ahozko komunikazio-gaitasun osoagoa garatzeko euskalkiak baliagarritasunik duen aztertzea.
- c) Ipuinek euskalkiak ikasteko eta horiekiko sena pizteko duten balioa aztertzea.

Hala ere, irakurketa esku-hartzearen gunea izan arren, aurretiazko eta ondorengo jarduerak ere diseinatu dira haurren garapenean laguntzeko eta ahalik eta kalitaterik oneneko datuak biltzeko. Datu horietatik garatu da ikerketa esanguratsua. Irakurri aurretik, aurrezagutzak zehazteko eta haurrek ipuinari buruzko hipotesiak sortzeko jarduerak egingo dira eta ondoren, berriz, hizkuntza arloan ikasitakoa barneratuta duten

⁵ Ikus <http://www.ikaselkar.eus/liburu-digitalak/> .

⁶ Horretarako, jatorrizko ipuina bizkaierara moldatu da.

ebaluatzeko eta hizkuntza-gaitasuna elkarrizketa bidez garatzeko jarduerak egingo dira. Jarduera horien guztien emaitza jasotzeko, fitxa ezberdinak eta ikus-entzunezko euskarria duten baliabideak erabili dira. Horrek aukera eman digu, haurrek esku-hartzearen aurretik eta ondoren zuten hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna alderatzeko.


Esku-hartze didaktiko honetan lortuko diren emaitzen aurrean dauden hipotesiak ondokoak dira:

- a) Ipuinen irakurketa esanguratsuak haurren ahozko komunikazio-gaitasuneko forma batzuk garatuko ditu bere osotasunean, haurren ama-hizkuntza edozein dela ere (H_1).
- b) Bizkaierara moldatuta dagoen ipuinaren irakurketa esanguratsuak haurren ahozko komunikazio-gaitasuna osatuko du, haurrak ama-hizkuntza zein den kontuan hartuta emaitza ezberdinak erakutsiz (H_2):
 - i. Euskalkidun haurrek tokian tokiko hizkerak berezko dituen hiztegi eta egitura batzuk erabiliko dituzte hasieratik eta beste batzuk ere ikasiko dituzte ($H_{2.1}$).
 - ii. Ama-hizkuntza euskara batua duten haurrek ez dituzte tokian tokiko hizkerak berezko dituen hiztegi eta egiturak erabiliko esku-hartzearen aurretiazko jardueretan, baina azken fasera heltzen direnerako zenbait egitura erabiltzen hasiko dira ($H_{2.2}$).
 - iii. Ama-hizkuntza erdara duten haurrek zailtasunak izango dituzte irudietan agertutako kontzeptu eta jarduerak izendatzeko eta ez dituzte tokian tokiko hizkerak berezko dituen hiztegi eta egiturak erabiliko. Gainera, maileguak ere erabiliko dituzte. Hala ere, euskalkiarekiko sena eta ezagutza indartuko dituzte eta aurreko taldeak bezala, euskalkiak berezko dituen egitura eta hitzak erabiliko badituzte, hein txikiago batean izatea espero da ($H_{2.3}$).

2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

2.1. Hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna. Kontzeptua eta garapenean laguntzea

Aurretiaz esan bezala, lan honen helburu orokorra da haurren ahozko hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunaren garapenean laguntzea. Lehenengo hori, hizkuntza-gaitasuna, hiztun-entzule idealak duen hizkuntza baten egiturari buruzko ezagutza gramatikala da (Hymes, 1972). Baina haur arrunt batek hizkuntzaren gramatika-arauak ikasteaz gain, hizkuntza momentu eta testuinguru bakoitzari egokitzen ere ikasten du, hau da, komunikazio-gaitasuna garatzen du. Beraz, komunikazio-gaitasunak hizkuntza-gaitasunak baino eremu zabalagoa hartzen du: arau gramatikalen ezagutza eta onargarritasuna eskatzen ditu. Onargarritasun hori, diskurtsoa testuinguru jakinetara egokituz lortzen da eta horretarako gaitasun estrategikoa eta balio pragmatikoa⁷ erabiltzea komeni da. Komunikazio-gaitasunak barneratzen dituen gaitasun horiek (hizkuntza-gaitasuna, gaitasun estrategikoa eta balio pragmatikoa) eta bakoitzak hartzen duen eremua aipatu zituen Spielmannek (2013) 2. irudian jasotako hurrengo eskeman.



2. irudia: Gaitasun-komunikatiboa (Spielmann, 2013)

Aipatutako komunikazio-gaitasuna garatzeko iturri eta eredu egokiak dira literatura-irakurgaiak eta zehatzago ipuina, horretarako haurrei *input* esanguratsua eskaintzen dien heinean. Horrela jasotzen da 237/2015 Dekretua, abenduaren 23koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoan jasotako *Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako oinarrizko konpetentzia espezifikoa*.

⁷ Balio pragmatikoa da efektu komunikatiboak lortzeko araua esplotatzea. Balio linguistikoak komunikatu ezin duen efektua deskribatzeko erabiltzen da (García-Arriola eta Iruskieta, 2016).

Hala ere, *input* esanguratsuak eskaintzea lagungarri den arren ez da nahikoa. Haurra da bere gaitasun-komunikatiboa eraiki eta garatu behar duena eta eraikitze-prozesu horretan laguntzen dute metodologia konstruktibistek. Ildo konstruktibistaren arabera, haurrak ikaskuntza berria lehenago dituen jakintzen gainean sortzen du eta horretarako, ezinbestekoa du bere parte-hartze aktiboa (Maia eta Larrea, 2008). Metodologia hori hartu da oinarritzat, ikasketa esanguratsua⁸ eraikitzen lagunduko dion ipuin tailerra⁹ diseinatzeko. Hau da, Diazek (2016) azaldu bezala, lehenengo haurrek aurretiaz dituzten ezagutzak zeintzuk diren jakiteko jarduera batzuk prestatu dira. Ondoren, ezagutza horien gainean berriak eraikitzeke beste jarduera batzuk ere diseinatu dira. Eraikitze-prozesu osoan zehar, Segurak (2005) aipatutako aldamia¹⁰ edo laguntza eskainiko zaie haurrei; diseinatutako jarduerak erabiliko dira helduaren eta haurraren arteko elkarrizketa elkarreragileren bidez komunikazio-gaitasuna garatzeko barne prozesu hori errazteko.

Komeni da laguntza hori ematea Sanchez-Canok (2001) aipatutako elkarrizketetako estrategien bidez. Hau da, komunikazio-gaitasunaren garapenean laguntzeko egokia da haurren ahozko ekoizpena indartzeko estrategiak erabiltzea. Estrategiok dira gutxieneko erantzuna eta laguntza semantikoa ematea, besteak beste, baieztatpena, imitazioa, birformulazioa, zuzenketa eta kateatzea erabiliz.

2.2. Ipuina bizkaierara moldatzeko irizpideak

Moldatu den ipuina Ikastolen Elkartek (Murua, 2010) argitaratutako *Martin Txiki eta Basajaunak* da. Hori da Urtxinta Proiektuak lau urteko haurrentzat proposatzen duen bigarren hiruhilabetekorako ipuinetako bat. Euskara batuan dago idatzita, eta ipuin hori bizkaierara moldatu da¹¹, batez ere sintaxia eta hiztegiari dagokionean. Hurrengo taulan (ikusi 1. taula) jasotzen da sintaxian egindako moldaketan laburpena. Taularen lehenengo zutabea jasotzen da moldatua izan den kategoria (adibidez, deklinabidea ala aditza), bigarren zutabea kategoria horiek ipuineko zein adibidetan landu ditugun eta hirugarren eta laugarren zutabea, adibideok nola jaso diren batuaz eta bizkaieraz hurrenez hurren:

⁸ Maiaren eta Larrearen (2008) arabera, ikasketa esanguratsua da jakintza zaharren eta berrien arteko loturak ezartzeko aukera ematen duena.

⁹ Quintoren (2005) arabera, tailerra espezializatutako lekua da eta bertan, hausnartutako jarduerak egiten dira.

¹⁰ Seguraren arabera aldamia irakasleak edo beste ikasleek emandako laguntza mota da. Laguntza horri esker ikasleek euren egungo gaitasunetatik nahi diren helburuak betetzeko bidea egiten dute (2005).

¹¹ Ikusi 1. eranskina.

ADIBIDE BATUA BIZKAIERA
ZENBAKIA

SINTAXIA			
Izenordain indartuak	(1), (2), (3)	Ni, zu, gu, hura	Neu, zeu, geu, bera
Erakusleak	(4), (5)	Hau, hori, hura Hauek, horiek, haiek	Hau, hori, ha Honeek, horreek, hareek
Deklinabidea	(6) (7) (8) (9)	-a Garia Tranpa Saiakera -rekin Batekin	-e/-ea Garie Tranpea Saiakerea -agaz Bategaz
Postposizioak	(4)	Gabe	Barik
Graduatzaileak			
Atzizkiak	(10) (11) (12)	-Txo Txikitxo Pixka bat Urrun Erraldoi	-Txu Txikitxu Apurtxu Asautxuau -Tzar Gizontzar
Errepikapenak	(13) (14)	Bizkor Zabal-zabalak	Zuhur-zuhur Nasai-nasaiek
Forma lexikalak	(15) (16)	Oso Bikaina	Sano Itzelezko
Aditza			
Partizipio burutua	(17) (18) (19) (20)	-n Eman -atu Probatu Asmatu Harrapatu	-on Emon -au Probau Asmau Harrapau
Partizipio burutugabea	(21) (22)	-tzen Pentsatzen	-tan Pentsetan Ernegetan
	(23)	Erabaki	Eretxi
	(24)	Nahi	Gura
Modulatzailea	(13)	Omen	Ei
Aditz-laguntzaileak	(25)	Zuen, zuten, ziren Zekien. Zabilza Zatozte	Zeuen, zaben, ziran Ekian, Zabilz Erduze
Konpletiboa	(4)	-la	-na
Errepikapena	(26) (27)	Esatea errazagoa Basajaunek garia daukate, eta ogia jaten dute, baina guk ez	Esan erraza da esatea Basajaunek garia eduki badeukie, eta ogia be jan jaten dabe, baina geuk ez
Lokailuak	(28), (29)	Ere	Be

1. taula: Moldaketen laburpen taula

2.2.1. Sintaxia

Sintaxia egokitzeko Arejitak (2002 eta 2005) eta Zuazok eta Goitik (2017) proposatutako ondoko jarraibideak erabili dira:

2.2.1.1. Izenordain indartuak

Besteak beste *neu*, *geu*, *eta zeu* erabili dira lehenengo eta bigarren graduan eta *bera* hirugarren graduan. Izan ere, izenordain indartuok erabiltzeko joera handiagoa dago mendebaldeko euskalkietan. Hurrengo testuinguruetan erabili dira ipuinean:

i. Izenordaina galdegaia denean (ikus 1 adibidea).

(1) *Zeuk barre egin, baina ezetz salto bategaz gari pilo horren ganetik pasau.*

ii. Kontrakotasuna adierazteko (ikus 2 adibidea).

(2) *Ni Martintxu naz eta pentsetan ibili naz zu handia izen bazarala, baina ez neu besteko zuhurre.*

iii. *Be, bere, behintzat* eta antzekoen aurreko izenordaina (ikus 3 adibidea).

(3) *Geuk bere garia bagendu, ogia jango geunke.*

2.2.1.2. Erakusleak

Erakusle arrunt bezala erabiliko dira *hau*, *hori*, *ha* (*huraren* ordezt), *honeek* (*haueken* ordezt), *horreek* (*horieken* ordezt) eta *hareek* (*haieken* ordezt) (ikus 4 eta 5 adibideak).

(4) *Izan be, sasoi hareetan gizakumeak ez eukan garirik eta, jakina da, garirik barik ezin dana ogirik ein.*

(5) *Martin Txikik ederto entzun zeuzen berba hareexek, eta, orain, baekien garia noz erein.*

2.2.1.3. Deklinabidea

Deklinabideari dagokionez, batez ere bi aldaketa egin dira, batuarekin alderatuta bizkaiera ezaugarritzen duten kasurik esanguratsuenak direlako. Lehengoa, absolutuari dagokionez, *-a* amaieradun hitzek *-e* edo *-ea* hartzen dute ahoskatzerakoan eta idazterakoan (ikus 6, 7 eta 8 adibideak).

(6) Batuaz *garia* > bizkaieraz ‘*garie*’, (7) *tranpa* > ‘*tranpea*’ edo (8) *saiakera* > ‘*saiakerea*’.

Bigarren aldaketa sozietiboarekin lotuta dago. Kasu horretan, *-rekin* erabili barik *-(a)gaz* erabiliko da (ikus 9 adibidea).

(9) Batuaz *batekin* barik bizkaieraz ‘*bategaz*’.

2.2.1.4. Postposizioak

Gaberen ordez *barik* erabili da (ikus 4 adibidea).

2.2.1.5. Graduatzailerak

- i. Atzizkiak. Bizkaieraz (mendebaldeko euskaraz) sarritan erabiliak diren (Arejita, 2002) *-txu* *-txoren* ordez eta *-tzar* atzizki graduatzaileak ezarri dira. *-Txu* atzizkiaren kasuan, beheranzko graduazioa egiteko, hau da erdeinuzko esangura emateko, erabili da (ikus 10 adibidea).

(10) - *Ikusi al dozu, txikitxu horreek?- esan zotsien Martin Txikiri-. Orain zeure txandea da.*

Atzizki hori txikitasuna adierazteko ere erabili da (ikus 11 adibidea).

(11) *Apurtxu bat asautxuau egoanean halan esan zotsien barrabas aurpegia ipinita.:*

-Tzar atzizkiaren kasuan, hori handitasuna adierazteko erabili da, batuan dagoen bertsioko *erraldoi* hitza (12) *gizontzar* hitzarekin ordezkatur.

- ii. Errepikapena. Batez ere adjektiboen kasuan horien esanahia edo izenak duen ezaugarria goratzeko erabili da. Bizkaieraz arrunta da baliabide hau erabiltzea helburu hori lortzeko (ikus 13 eta 14 adibideak).

(13) *Munduan asko lez, arto-koskolez, orain dala urte partidea Martin Txiki izeneko mutil zuhur-zuhur bat bizi ei zan Aralar ingeruko uri batean.*

(14) *Etxera sartu eta arin batean aitten abarkak jantzi zeuzen, abarka nasai-nasaiek.*

- iii. Forma lexikalak. Graduatzailerak bezala *sano* eta *itzelezko* hitzak jarri dira, bizkaieraz erabiliak dira eta. Hurrengoak dira horien adibide (ikus 15 eta 16 adibideak):

(15) *Halanda be sano zuhurra zan eta atoan asmau zeuen modue.*

(16) *-Iapa-iapa-iuuu! Itzelezko burutazinoa euki dot!-esan zeuen.*

2.2.1.6. Aditza

Aditzaren aspektua bizkaierara egokitzeko hurrengoak eduki dira kontuan:

- i. Partizipio burutuak amaieran *-n* duenean *-on* ipini da bizkaieraz (ikus 17 adibidea):

(17) *Aralarreko mendietan bizi ziran, eta hareexek bai, hareek euki baeukean garie, baina gizakumei ez zotsien emon gura izaten.*

- ii. Partizipio burutuak amaieran *-atu* duenean *-au* erabili da bizkaieraz (ikus 18, 19 eta 20 adibideak).
- (18) *probau*, (19) *asmau edo* (20) *harrapau*.
- iii. Partizipio burutugabearen kasuan, *-tan* moldea erabiltzen da bizkaieraz *-tzen* moldearen ordeztuz (Garate, 1996) (ikus 21 eta 22 adibideak).
- (21) *Behin, Martin Txiki etxeko atarian jarri eta pentsetan hasi zan.*
- (22) *Martin Txiki ernegetan egoan.*
- iv. *Eretxi* aditz berezia erabili da *uste*, *iritzi* edo *erabakiren* ordeztuz (ikus 23 adibidea).
- (23) *Martin Txikiri orduan, pentsauta eukon tranpea egiteko garaia zala eretxi zotson.*
- v. *Nahiren* ordeztuz *gura* aditz-lokuzioa erabili da (ikus 24 adibidea).
- (24) *Aralarreko mendietan bizi ziran, eta hareexek bai, hareek euki baeukean garie, baina gizakumei ez zotsien emon gure izaten.*
- vi. Aditza modulatzeko hitz legezt *ei* erabili da. Arejitak (2002) *ei* batuzko omen partikularen kidea dela dio. Gainera, ipuinak kontatzen direnean asko erabiltzen dela aipatzen du (ikus 13 adibidea).
- vii. Aditz-laguntzaile guztiak bizkaierazko laguntzaileekin ordeztu dira. Ipuin honen kasuan bereziki egite era (*zeuen*, *zaben*, *ziran*), aditz trinkoak (*ekian*, *zabilz*) eta aginte era erabili dira. Azken horren kasuan aipagarria da Mungialdean erabiltzen den *erdu* aditza. Aditz trinko hori aginte eran erabili da (ikus 25 adibidea).
- (25) *-E! Erduze! Erduze danok! Garia lortu dot! Garia lortu dot!*
- viii. Menpeko esaldi konpletiboetan *-la* ordeztuz *-na* erabiltzea arrunta da bizkaieraz ziurtasuna erakusteko Garateren (1996) ustezt (ikus 4 adibidea).
- ix. Aditzaren errepikapena. Garateren (1996) arabera, aditza errepikatzea ohikoa da bizkaieraz indargarri gisa (ikus 26 eta 27 adibideak).
- (26) *Esan erraza da esatea, eitea ez baina.*
- (27) *-Basajaunek garia eduki badeukie, eta ogia be jan jaten dabe, baina geuk ez.*

2.2.1.7. Lokailuak

Ere lokailuaren ordez *be* erabili da (ikus (28) eta (29) adibideak).

(28) *Martin Txikik be beran abarka handiekaz abiadea hartu zeuen eta ieup!, salto egin zeuen.*

(29) *Eta geuk be graziak Martin Txikiri jaten doguz bokadilo goxoak.*

2.2.2. Hiztegia

Hiztegiaren kasuan, ordea, Zuazok eta Goitik (2017) eta Mungiaiko ikastetxeak (2012) proposatutako Mungialdeko berbak erabili dira. Bigarren taulan jaso dira alde batetik Euskara Batuko Hiztegia (EBH) eta bestetik, horien baliokide diren Bizkaiera eta Mungialdeko Hizkeraren Berezko Hiztegia (BMHH) oinarri hartuta erabilitako berbak:

EBH	BMHH	EBH	BMHH
Ahopean	Isilke-misilke	Herri	Uri
Ale	Garau	Hitz	Berba
Aspertu	Abrozidu	Ideia	Burutazino
Berehala	Atoan	Iritsi	Heldu
Bihurri	Barrabas	Itsusi	Motz
Bikain	Itzelezko	Jakintsu	Jakitun
Bilatu	Topau	Korrika	Karraderan/arrapaladan
Bildu	Batu	Lapurtu	Ostu
Bizkorra	Zuhurra	Laster	Segiduan
Desafioa bota	Gangarra altxau	Mendian behera	Aurbhehera
Erraldoi	Gizontzar	Nahi	Gura
Eseri	Jarri	Ordea	Ostera
Esker	Graziak	Oso	Sano
Ezkutatu	Ostondu	Pixka bat	Apur bat
Gai izan	Kapaz izan	Proba	Saiakerea
Garrasika	Poperreka	Udazkena	Udagoiena
Gizaki	Gizakume	Urrun	Asau
Guztiak	Danak	Zabala	Nasaia
Haserre	Motxortuta/ernegauta	Zatozte	Erduze

2. taula: Hiztegiaren moldaketa

Azkenik, ipuinari tentsio eta adierazgarritasun handiagoa emateko, Amestoyren eta Martinezen (1992) *Behin Bazen* bildumako *Martintxo eta Basajaunak* oinarri hartuta zenbait aldaketa egin dira originala den bertsioan. Horretarako, arriskua eta tentsioa areagotzen duten onomatopeiak (besteak beste *zas*) eta entzuleak ekintzaren bat-batekotasuna sentitu dezan eta espazioan kokatu dadin laguntzen duten esaldiak erabili dira (ikus 30 adibidea).

(30) *Martin Txikik baekien basora heldukeran salbu egongo zala. Momentu batean entzun zeuzen basajaunak hurbilduten eta zas! Ikusi be, ikusi zeuen gauza bat beran ondotik pasetan. Aizkora bat zan.*


3. Metodologia

3.1. Ipuinaren moldaketa

Haur Hezkuntzako lau urteko hurrek osatutako gela bateko ikasleentzako proposamen didaktiko bat egin da ikertzeko eta erakusteko zein eragin duten irakurketa esanguratsuak eta irakurketa horretan euskalkia erabiltzeak hurren ahozko hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunaren garapenean, haur horien ama-hizkuntza zein den kontuan hartuta. Esku-hartzea eta ikerketa burutu aurretik eta hori egin ahal izateko, *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuina bizkaierara moldatu da txosten honetako esparru teorikoan jasotako irizpideak jarraituz. Testuari sintaxia eta hiztegia aldatu zaizkio euskalki horretara egokitzeko.

3.2. Esku-hartzea eta datu-bilketa

Ipuina moldatuta, proposamen didaktikoa diseinatzeko zenbait fase eta fase bakoitzean hainbat jardura sortu dira, aurretiaz aipatutako metodologia konstruktibistan oinarrituta eta betiere hurren ama-hizkuntzaren aniztasuna kontuan hartuz. Hurrengo irudian (ikus 3 irudia) esku-hartzea osatzen duten aurretiazko, bitarteko eta ondorengo jarduerak jasotzen dira:



3. irudia: Proposamen didaktikoaren faseak.

Jardura guztien ostean, hurrek erakutsitako hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunari buruzko datuak euskarri ezberdinetan (grabaketak, behaketa-orriak eta fitxak)¹² jaso dira. Sortutako behaketa-orriak eta fitxak hurrengoak dira:

- a) Hizkuntzaren arloan ezagutzak zehazteko fitxa (ikus 3. eranskina).
- b) Hipotesiak egiteko fitxa: narrazioaren sekuentzia (ikus 4. eranskina).

¹² Beren beregi sortutako euskarriak.

- c) Hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunaren aurreko eta ondorengo ebaluazioa egiteko fitxa (5. eranskina).

Horietan guztietan jasotako datuak izan dira lan honetako ikerketaren oinarri eta beraz, zehaztutako helburu eta hipotesien betepena baieztatu edo ezeztatzeko aztertu dira, emaitzak atalean.

3.2.1. Haurren euskalkiaren jabekuntza aktibatu eta zehaztea

Ipuina kontatu aurretik bederatziz hurrekin jarduera bat burutu da, euren hizkuntzarekiko aurrezagutzak zeintzuk diren zehazteko asmoz. Aipatutako bederatziz haurrak, hiru umeko hiru taldetan banatu dira, nahiz eta jarduera hau modu indibidualean egin. Haurren aukeraketa egiteko, kontuan izan den irizpidea euren ama-hizkuntza izan da. Lehenengo taldea ama-hizkuntza euskara batua duten hurrez osatuta dago, bigarrena, ama-hizkuntza euskara duten euskalkidunez eta hirugarrena aldiz, ama-hizkuntza gaztelania duten hurrez. Lan honen bidez ateratako ondorioak osoagoak lirateke, haurren lagina handiagoa balitz. Hala ere, egindako azterketaren sakontasunak metodoa eta aurretiaz zehaztutako hipotesiak probatzeko aukera nahikoa emango digula uste dugu eta horri eman diogu garrantzia ondo dokumentatuz.

Haur bakoitzari banaka irudi batzuk¹³ aurkeztu zaizkie. Irudi horiek sortu dira *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuinean agertzen diren ekintza eta kontzeptuak erakusteko. Irudiok bikoteka antolatu dira, kontrako kontzeptuak edo jarduerak¹⁴ erakutsiz. Hau da, bikoteetako batean adibidez (ikus 4. irudia), herria eta mendia erakutsi dira, hurrek ezberdintasuna modu argian ikus dezaten.



4. irudia: Kontrako kontzeptuak erakusteko eredua.

Bikote bakoitzean ageri den kontzeptu edo jardueretako bat (3. taulan jasotako bikote bakoitzeko lehenengoa) geroago irakurri zaien ipuinean aipatzen da. Guztira hamabi bikote erabili dira hurrengo, izen, izenondo, aditz eta aditzondoetan antolatuta:

¹³ Ikusi 2. eranskina.

¹⁴ Haur Hezkuntzan teknika hau erabili ohi da lexikoa ikasteko.

IZENAK	IZENONDOA	ADITZAK	ADITZONDOAK
Uria - Mendia Gari garaua - Garia Udagoiena - Negua	Motza - Polita	Gura - Gura izan ez Jarri - Altxatu Berba egin - Isildu Ostendu - Agertu	Karraderan edo arrapaladan - Geldi Apur bat - Asko Asau - Hurbil Aurbehera - Aldats gora

3. taula: Kontrako kontzeptuen eta jardueren taula

Haurrei irudien bikote bakoitzean ikusten dutena galdetu zaie hurrengo itaunak erabiliz:

- Izenen kasuan: *Zer ikusten duzu irudi honetan? Zelan esaten dute etxean? Eta zure aititek eta amamak?*
- Izenondoaren kasuan: *Nolakoak dira basajauna eta mutila? Zelan esaten dute etxean? Eta zure aititek eta amamak?*
- Aditzen kasuan: *Zer ari da egiten Martin Txiki? Zer gertatzen zaio Martin Txikiri? Zelan esaten dute etxean? Eta zure aititek eta amamak?*
- Aditzondoaren kasuan: *Nola dabil Martin Txiki? Zenbat gari garau hartu du? Non daude Martin Txiki eta Basajaunak? Zelan esaten dute etxean? Eta zure aititek eta amamak?*

Jarduera egin ostean (audioa grabatu egin da) haurrek emandako erantzunak eranskinetan aurki daitekeen fitxan jaso dira¹⁵. Fitxa horretan zehaztu dira haur bakoitzak erabilitako hitza bizkaierari, euskara batuari ala erdarari dagokion eta haur bakoitzaren ama-hizkuntza zein den. Horrek balio izan digu haurrek dituzten hizkuntzarekiko aurrezagutzak zeintzuk diren zehazteko eta kuantifikatzeko eta $H_{2.1}$, $H_{2.2}$ eta $H_{2.3}$ hipotesiak modu partzialean (hipotesion lehenengo zatiek adierazten dute ipuina irakurri aurretik haurrek zein hiztegi erabiliko duten) baieztatu ala ezeztatzeke.

3.2.2. Ipuinaren sekuentziari buruzko hipotesiak eraikitzea

Jarduera honetan lehenengoz erakutsi zaizkie haurrei *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuina eta bertan agertzen diren irudiak. Ariketaren helburua bikoitza izan da. Alde batetik, haurrek ipuinean agertutako argumentuari buruzko hipotesiak egin dituzte. Horrela, hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna garatzeko aukera eskaini zaie. Beste alde batetik, aurre-ebaluazioa egiteko jarduera ere bada. Hau da, haurrek hipotesiak egiterako orduan erabilitako hizkuntza zein den ikusi da jarduera honetan, euren ama-hizkuntza eta komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunak zeintzuk dituzten azaletik zehaztuz. Beraz, lan honetan zehaztutako H_1 eta H_2 hipotesien betepena

¹⁵ Ikusi 3. Eranskina.

aztertzeko erabiliko da jarduera hau, 3.2.5. jardueran erakutsitako gaitasunarekin alderatzeko balio izango baitu.

Berriro ere banan-banan irudi batzuk aurkeztu zaizkie hurrei. Irudi horiek *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuinetik hartu dira, inolako moldaketarik egin gabe eta narrazioaren une esanguratsuak erakusteko asmoarekin. Aipatutako irudiok ondokoak dira (ikusi 5., 6., 7. eta 8. irudiak):

- a) Martin Txiki abarkak janzen ikusten b) Martin Txiki gari-metaren gainera salto egiten du.



5. Irudia: Hipotesiak eraikitze irudia.



6. Irudia: Hipotesiak eraikitze irudia.

- c) Basajaunak Martin Txikiren atzetik d) Martin herrira heldu eta herritarrei doaz harrapatu nahian.



7. Irudia: Hipotesiak eraikitze irudia.



8. Irudia: Hipotesiak eraikitze irudia.

Jarduera honek arestian aipatutako helburu bikoitza duenez, helburu horien betepena zein neurritan lortu den jasotzeko euskarria ere bikoitza da. Alde batetik, lehenengo helburuari dagozkion eta hurrek burututako hipotesiak egiteko sekuentziak itsatsi dituzte horretarako diseinatuta dagoen fitxa batean¹⁶. Beste alde batetik, hurrekin izandako elkarrizketak aztertzeko ere 5. eranskinean jasota dagoen fitxa bat sortu da. Fitxa horretan haurren hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunari buruzko ondoko itemak jaso eta bete ditugu, horiek haurren aurrezagutzak zeintzuk diren zehazten laguntzeko:

- a) Haurra gai da diskurtso ulergarria eraikitze laguntza semantikorik gabe eta elkarrizketan gutxieneko erantzuna emanda.
b) Haurrak euskara batua erabiltzen du bere diskurtsoan.

¹⁶ Ikusi 4. eranskinean.

- c) Haurrak euskalkia erabiltzen du bere diskurtsoan.
- d) Haurrak estrategia moduan maileguak erabiltzen ditu diskurtsoa eraikitzeko.

3.2.3. Bitarteko jarduera: Ipuinaren irakurketa eta markaketa

Ahozkotasuna garatzeko *input* esanguratsuak haurren ahozko komunikazio-gaitasunean duen eragina erakusteko xedearekin, Haur Hezkuntzako lau urteko gela bateko hurrei ipuin bat irakurri zaie. Irakurketa bost saiotan burutu da, guztiak 15 minutukoak. Lehenengo bi irakurraldiak ipuin originala (euskara batuan) erabiliz egin dira, baina hurrengo hirurak, ordea, Mungialdeko euskalkian Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (aurrerantzean EBAZ) jarraituz. Beraz, aipatutako *input* esanguratsuak hurrek euskalkiaren egiten duten erabileran duen eragina neurtu nahi da.

Irakurketa modu esanguratsuan egiteko, Garcia-Arriolak eta Iruskietak (2016) proposatutako hizkuntzaren balio pragmatikoa lantzeko estrategiak (bolumena, ahoskera, intonazioa, etenak, abiadura, lapsusak) eta Aizpuruak, Beaskoetxeak, Karrillok eta Iruskietak (argitaratzeko) proposatutako markaketa-sistema erabili dira¹⁷, euskara batuan eta bizkaierazko bertsioan. (34) eta (35) adibideetan jaso dira lehenengo batuaz dagoen testuaren lagina eta bigarreanean, lagin horren bizkaierazko bertsioa. Zati bietan ikus daiteke irakurketa erraztuko duen markaketa grafikoa¹⁸; geziekin intonazioa gora edo behera doan markatzen da, letra larriek bolumen ozena adierazten dute, barra okerreten laburrak (barra bakarra) eta luzeak (barra bikoitza) adierazten dituzte, gidoiek abiadura zehazteko balio dute eta azentua ere markatzen da.

(34) *Munduan ↗ BASÁ<Y>AUNÉK BAKARRIK ↗ <y>atentzuten ogiá. \//
Basá<y>aunák ↗/ ERRALDOI [gora begiratu] <Y>AKINTSU BATZUK ↗ ziren \//
Aralarko mendietán bizi ziren, \// eta haiek bai, \// [buruarekin baietz] haiek ↗
bazeukaten gariá,/ bai<ñ>a \// GI-ZA-KI-E-I ↗ [buruarekin ezetz] E-TZI-E-TEN E-
MAN NAHI i-za-ten ↗.//*

(35) *Munduen ↗ BASÁ<Y>AUNÁK BAI<Ñ>O EZaben <y>aten ogirik \// HAREEXEK
BAI GIZONTZARRAK! \// Basá<y>aunák/ ERRALDOI [gora begiratu] <Y>AKITUN
BATZUK ↗ ziran \// Arálarrekó mendietán bizi ziran \// eta hareexek bai, \//*

¹⁷ Ikusi 6. eranskina.

¹⁸ Ikusi 7. eranskina.

[buruarekin baietz] hareek euki baeukean / garié \,/ bai<ñ>a \/ GI-ZA-KU-MEI /

[buruarekin ezetz] EZ ZO-TSI-EN E-MON GU-RA izaten /./

Adibide hauetan parentesi zuzenen artean jarri dira irakurtzen den bitartean egin beharreko keinuak zeintzuk diren. 9, 10 eta 11 irudietan ikus daitezke keinuok:



9. Irudia: Gora begiratzen.



10. Irudia: Buruarekin baietz.



11. Irudia: Buruarekin ezetz.

Moldaketak aurretiaz aipatutako sintaxi- eta hiztegi-egokitzapenak izateaz gain, Zuazok eta Goitik (2017) zehazten dituzten eta Mungialdeko hizkerak berezko dituen ezaugarri fonologikoak erabili dira irakurketan:

1. -a bokalean amaitzen diren berben kasuan, -e edo -ea erabili da. Adibidez, (36) *garié*, (37) *ogie*, (38) *bustite* edo (39) *tranpea*.
2. Berba euskaldunen hasieran [j] [y] ahoskatu da. Adibidez, (40) *[y]an* edo (41) *[y]akina*.
3. Herriko berbetan egiten denez eta EBAZen onartzen denez, [s] eta [z] txistukariak [s] bezala egin dira eta [ts] eta [tz], [tz] bezala.
4. Azentua talde fonologikoaren¹⁹ azken silaban jarri da orokorrean (Gaminde, 2002). Adibidez, (42) (...) *hareek euki baeukean garié*.

Bost saioetan *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuinak dituen irudi originalak erabili dira *inputaren* ulergarritasunari laguntzeko²⁰. Azkenik aipatu nahi da, saio biren irudia grabatu dela, bata euskara batuaren erabileraren eredu izateko (kasu honetan ipuinaren testu originala erabili da)²¹ eta bestea, euskalkiaren erabileraren eredu izateko²².

¹⁹ Talde edo esaldi fonologikotzat hartzen da egitura sintaktiko batean dagoen talde klitiko bat edo gehiagoren multzoa (Elordieta, 2008) eta Aurrekoetxea et al.en arabera (2015), talde klitikoak da autonomia prosodikorik ez duten eta silaba bat edo bi dituzten hitzak. Kasu honetan, ondoren duen hitzarekin batera ahoskatzen da. Klitikotzat hartzen dira *ez*, *ba*, *da* adizkia eta aditz sintetiko guztiak. http://www.academia.edu/19164022/Euskararen_azentuera_hizkera_tradizionaletatik_euskara_estandarrera.

²⁰ Helburu berarekin, irakurleak erabiliko dituen keinuei ere arreta berezia eskaini zaie; hau da, irakurleak irakurketa keinuez lagundu du, haurrek narrazioa hobeto uler dezaten. Ikus keinuak 8. eranskinean.

²¹ Bideoaren esteka: <https://drive.google.com/open?id=1dQqJyJ0Fr2a1-vJ196xlmPv3tcCACrH>.

²² Bideoaren esteka: <https://drive.google.com/open?id=19i-xdfgiuA-xBdL-lCbOUepqWjxe0zcr>.

3.2.4. Eskema berriak eraikitzea

Fase honetan, ipuina irakurri aurretik aurrezagutzak zehazteko jarduera bera (3.2.1. fasean azaldutakoa) errepikatu da, baldintza berberetan. Hasteko, galdeketa bederatzi haurrei egin zaie, euren ama-hizkuntza euskara batua, euskalkia edo erdara den kontuan hartuta. Bigarrenenez, erabili diren irudiak berdinak izan dira eta horiek erabili dira ipuinean aipatzen diren hitzak esatera bideratu eta zein hizkuntza edo euskalki erabiltzen duten ikusteko. Azkenik, egin zaizkien galderak ere berdinak izan dira. Galdera horiek erabili dira, haurrak hitz zehatzak esatera bideratzeko.

Jarduera honen helburua, ipuina kontatzeak haurren *outputean* eraginik duen ikustea da. Hau da, aurretiaz dituzten hizkuntzari buruzko ezagutzen gainean ezagutza berriak eraiki diren ikusi nahi da (metodologia konstruktibistaren oinarria da hau).

Oraingoan ere, 3.2.1. faseko fitxa bera bete da (ikus 3. eranskina). Horrela, haurrak irudietan agertutakoa izendatzeko euskalkia, batua edo maileguak erabili dituen jaso da. Edozein kasutan, bizkaierazko *outputa* egiteko gai den ikusteko ipuina bizkaieraz kontatu denean zelan esan den galdetu zaio (*Zelan landu dugu bizkaieraz hori?*). Ondoren, fitxa biak alderatu eta *input* esanguratsuak haurren hizkuntza-gaitasunean izan dituen eraginak zehaztu dira. Horrela lortu da, 3.2.1. jardueran egindakoarekin alderatuta, $H_{2,1}$, $H_{2,2}$ eta $H_{2,3}$ hipotesiak baieztatu ala ezeztatzea.

3.2.5. Ahozko adierazpenerako ataza

Txosten honetako esparru teorikoan azaldu den legez, hizkuntza gehienbat elkarrizketa elkarreragileen bidez ikasten da. Hori da azken jarduera honen helburua: haurrei euren artean eta irakasleak beharrezko aldamiaoa jarriz, elkarrizketa bidez hizkuntzari buruz eraikitako ezagutzak egonkortzea eta haurren eta irakaslearen hizkuntza-ezagutzek beste haurrengan duten eragina zehaztea.

Horretarako, aurretiaz bederatzi haurren parte-hartzea izan dugula kontuan hartuta eta bakoitzak duen ama-hizkuntzak zein eragin duen modu eraginkorrean ondorioztatzeko asmoarekin, hiru talde ezberdin, A taldea, B taldea eta C taldea sortu dira. Talde horiek ama-hizkuntza euskara batua, euskalkia eta gaztelania duten hurrez osatu dira modu mistoan. Esaterako, B taldea ama-hizkuntza euskara batua duen haur batez eta ama-hizkuntzat euskalkia duten bi hurrez osatuta dago. Hala ere, lagina ikasgelako egoerara moldatu behar izan da, haur euskaldunen kopuruak mugatu baitu taldeak egiteko aukera hori. 4. taulan jasotzen dira taldeak eta horiek osaketa:

TALDEA	AMA-HIZKUNTZA EUSKARA DUEN HAURRA	AMA-HIZKUNTZA BATUA EUSKALKIA DUEN HAURRA	AMA-HIZKUNTZA GAZTELANIA DUEN HAURRA
A	1	1	1
B	1	2	
C	1		2

4. taula: Ahozko adierazpenerako ataza egiteko taldeak

Taldeak sortuta, talde bakoitzeko haurren artean elkarrizketa bultzatu duen hurrengo galdera eragilea plazaratu zaie: *Zer gertatuko litzateke Martintxok gari-metaren gainetik salto egitea lortuko balu?*²³ Erantzuna eman nahian, ipuinaren amaiera aldatzeko ataza burutu dute eta, hortaz, eraikitako hizkuntzari buruzko ezagutzak egonkortu eta komunikazio-praktika ezberdinean erabiltzeko aukera eman zaie, arreta berezia eskainiz bizkaierazko hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunak garatu diren.

Jarduera honen ebaluazioa egiteko haurren elkarrizketen audioak grabatu dira eta 5. eranskinean jasotako fitxa erabili da haurrek erabilitako hizkuntzan euskalkiak eraginik izan duen ondorioztatzeko eta H₁ eta H₂ hipotesiak bete diren zehazteko.

4. Emaitzak

Lanaren atal honetan aurretiaz azaldutako esku-hartzeari dagozkion jardueren emaitzak bildu dira. Horretarako metodologian jasotako egiturari jarraitu zaio, haurren aurretiazko eta ipuina kontatu osteko hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunen inguruko emaitzak zehazteko eta horiek alderatzeko. Horrez gain, txosten honen sarreran hipotesi ezberdinak ageri dira ama-hizkuntza euskara batua, euskalkia edo gaztelania duten haurrentzako. Hori dela eta, emaitzak haurren ama-hizkuntzaren arabera antolatuko dira, hipotesiak bete diren eta hala bada zein gradutan bete diren zehaztuz.

Aipatu behar da, esku-hartzea Practicum III irakasgaia egiteko ikasgelan burutu dela eta praktikek iraun bitartean hurrekin euskalkia erabili dela. Irakasle-tutoreak ere hala egiten du ahozko komunikazioan eta horrek emaitzetan eragina izan dezake.

²³ Haurrei laguntzeko Martin Txikik gari piloaren erdira salto egiten ikusten den irudia aldatu da, beste aldera salto egiten duela erakusteko. Ikus 9. eranskina.

4.1. Haurren euskalkiaren jabekuntza aktibatu eta zehaztea

Aurrezagutzak aktibatu eta zehazteko jardueran haurrek ipuina irakurri aurretik erabilitako hiztegia ebaluatu da horretarako kontrakotasuna adierazten duten 2. eranskineko irudiak eta 3. eranskineko taula erabilia²⁴. Taula horretan jaso diren datuetatik emaitza orokorrak atera dira haurren ama-hizkuntzaren arabera, H_{2.1}, H_{2.2} eta H_{2.3} hipotesien betepena ondorioztatzeko. Emaitza orokor horiek hurrengo taulan laburbildu dira. Bertan jasotzen dira haurren ama-hizkuntza zein den eta euskara batuan eta euskalkian erabilitako hitzen, maileguen eta ez dakizkiten hitzen kopuruak eta horiei dagozkien portzentajeak (ikus 5. taula):

Ikaslea	Ama-hizkuntza	Euskara batuan erabilitako hitzak		Euskalkian erabilitako hitzak		Maileguak		Ez dakizkien hitzak	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Ikasle 1	Euskalkia ²⁵	5	38,46	4	30,77	2	15,38	2	15,38
Ikasle 2	Euskalkia	5	41,67	6	50	0	0	1	8,33
Ikasle 3	Euskalkia	4	30,77	5	38,46	0	0	4	30,77
Ikasle 4	Batua ²⁶	8	61,54	4	30,77	0	0	1	7,69
Ikasle 5	Batua	3	25	4	33,33	0	0	5	41,67
Ikasle 6	Batua	1	8,33	4	33,33	0	0	7	58,33
Ikasle 7	Gaztelania	2	16,67	2	16,67	1	8,33	7	58,33
Ikasle 8	Gaztelania	4	33,33	1	8,33	3	25	4	33,33
Ikasle 9	Gaztelania	1	8,33	2	16,67	1	8,33	8	66,67

5. taula: Haurren hizkuntzari buruzko aurrezagutzak

Taulan honetan ikus daiteke, ama-hizkuntza euskalkia duten haurren kasuan, lehenengo ikaslearen kasua kenduta, haur hauek erabiltzen duten hiztegi gehiena euskalkiak berezkoa duena dela (batez beste %39,74) nahiz eta batuarekin alde handirik izan ez (batez beste %36,97). Beraz, H_{2.1} hipotesia bete egin da ipuina irakurri aurretik erabiltzen duten hizkuntzari dagokionean. Horrez gain, aipagarria da ez dutela orokorrean mailegurik erabiltzen, berriro ere lehenengo ikaslearen kasua salbuespena delarik (%15,38), baina euskalkian arrunta izan ohi da hori kasu batzuetan.

Ama-hizkuntza batua duten haurren kasuan bi talde ezberdindu behar dira. Laugarren ikaslearen kasuan, euskara batuak berezko dituen hitzen erabilera

²⁴ Ikusi betetako taula 10. eranskinean.

²⁵ *Jesarri* eta *gitxi* hitzak bizkaierazkoak direla ulertu da eta taulan jasotako hitz multzo bakoitzean hitz bat barik bi esan direnean biak zenbatu dira. Taula guztietan egin da hori.

²⁶ *Arin* hitza euskalkiari gehiago hurbiltzen zaiola ulertu da kasu guztietan.

narbarmenagoa da (%61,54) bizkaierarekin alderatuta (%30,77). Bosgarren eta seigarren haurren kasuan euskalkian erabilitako hitzen kopurua gailentzen da (bataz beste %33,33 %16,66ren kontra), ez dakizkiten hitzen kopurua oso altua da eta. Epe ertainera begirako behaketan oinarrituta, haur horien segurtasun faltak eragindakoak izan daitezke emaitzak. Dena dela, hiru haurrek erabiltzen dute bizkaierak berezko duen hiztegia, hein txikiagoan bada ere. Hori dela eta, $H_{2,2}$ hipotesia ez da bete ipuina irakurri aurretik erabiltzen duten hizkuntzari dagokionean.

Ama-hizkuntza gaztelania duten haurren kasuan, adierazgarriena ez dakizkiten hitzen (bataz beste %52,78) eta erabilitako maileguen (bataz beste %13,89) kopurua da. Horrez gain, gutxi bada ere, bizkaierak berezko duen hiztegia ere erabili dute. Beraz, $H_{2,3}$ hipotesia bete egin da hitz ezezagun eta maileguen erabilerari dagokionean, baina ipuina irakurri aurretik zenbait hitz erabili dituzte bizkaieraz.

4.2. Ipuinaren sekuentziari buruzko hipotesiak eraikitzea

Atal honetako emaitzak eratoritzeko 4. eranskinetako fitxa osatuetan jasotako oharrak (ikus 11. eranskina) eta 5. eranskinetako taula osatua (ikus 12. eranskina) hartu dira kontuan. 12. irudian ikus daitezke betetako fitxetariko bat. Bertan ikus daitezke haurrek sortutako narrazioa eta eragindako diskurtsoaren inguruan jaso diren oharrak:



12. Irudia: Hipotesiak egiteko fitxa: narrazioaren sekuentzia.

Haur guztiek dituzte diskurtso koherentea sortzeko zailtasunak. Aipagarria da bederatzi haurretatik bakarrak (12. irudian jasotako fitxa egin duenak) osatu duela ipuinaren sekuentzia zuzena. Orokorrean, erabilitako irudi bakoitzean ageri dena deskribatzen dute, kasurik gehienetan esaldi oso laburrak erabilia eta zenbait kasutan, ikusten dutenaren zerrenda hutsa eginda. Aditzen erabilera oso txikia da eta horrek zaildu egiten du, bizkaiera eta euskara batua erabiltzen duten bereiztea.

Erabiltzen duten euskarari dagokionez, haur guztiek erabiltzen dute euskara batua, bosgarren ikaslea eta bederatzigarrena kenduta, bosgarrenak ez baitu istoriorik kontatu nahi izan eta bederatzigarrenak, aldiz, gaztelaniaz egin du bere diskurtsoa. Ama-hizkuntza euskalkia duten haurren kasuan euskara batua eta euskalkia erabiltzen dituzte euren diskurtsoan, lehenengo ikasleak kenduta, horrek batua bakarrik erabili baitu. Maileguak gehienbat ama-hizkuntza gaztelania duten haurrek erabili dituzte.

Datu hauek eta 4.4 atalean jasotakoek lagunduko dute H_1 eta H_2 hipotesiak baieztatzen ala ezeztatzen eta, beraz, atal horretan egingo da hori.

4.3. Eskema berriak eraikitzea

Ipuina kontatu ondoren, irakurketa esanguratsuak izan duen eragina neurtzeko jarduerak egin dira. Hasteko, berriro ere 2. eranskinean jasotako kontraktasuna adierazten duten irudiak erabili dira. Datuen eratoritzea errazteko 3. eranskinean jasotako taula osatu da (ikus 13. eranskina), haurren ama-hizkuntza kontuan hartuta.

Datuak bilduta eta aztertuta, hurrengo taulan emaitzak jaso dira (ikus 6. taula). Bertan jaso dira haur bakoitzaren ama-hizkuntza zein den eta ipuina irakurri ostean haurrek euskara batuan eta euskalkian erabilitako hitzen, maileguen eta ez dakizkiten hitzen kopuruak eta portzentajeak. Kopuru horiek ipuina irakurri aurretik lortutako emaitzekin alderatu dira (ikus 5. taula), haurrek izan duten garapena zein izan den modu kuantitatiboan ondorioztatu eta $H_{2.1}$, $H_{2.2}$ eta $H_{2.3}$ hipotesiak betetzen diren ikusteko.

Ikaslea	Ama-hizkuntza	Euskara batuan erabilitako hitzak		Euskalkian erabilitako hitzak		Maileguak		Ez dakizkien hitzak	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Ikasle 1	Euskalkia	8	50	6	37,5	0	0	2	12,5
Ikasle 2	Euskalkia	6	37,5	9	56,25	0	0	1	6,25
Ikasle 3	Euskalkia	5	35,71	7	50	0	0	2	14,29
Ikasle 4	Batua	8	40	12	60	0	0	0	0
Ikasle 5	Batua	6	40	8	53,33	0	0	1	6,67
Ikasle 6	Batua	3	25	4	33,33	0	0	5	41,67
Ikasle 7	Gaztelania	5	41,67	3	25	1	8,33	3	25
Ikasle 8	Gaztelania	5	33,33	3	20	3	20	4	26,67
Ikasle 9	Gaztelania	2	16,67	3	25	1	8,33	6	50

6. taula: Haurrek hizkuntzari buruz eraikitako ezagutzak

Ama-hizkuntza euskalkia duten haurren kasuan, lehenengo ikaslearen salbuespena kenduta, euskalkia erabiltzen dute euskara batua baino gehiago, batz bestea

%47,92an (euskara batuaren erabilera batz bestea %41,07koa da). Gainera, euskalkiaren erabilera ere hazi egin da batz bestea %39,74tik %47,92ra. Adierazgarria da hiruren kasuan ez dakizkiten hitzen kopurua jaitsi egin dela nabarmen (batz bestean %18,16tik %11,01era), euskaraz (batuaz zein euskalkian) esaten dakiten hitz kopuruaren mesedetan. Beraz, H_1 , H_2 eta $H_{2,1}$ hipotesiak bete dira.

Ama-hizkuntza euskara batua duten haurren kasuan, berriro ere bi talde egin behar dira, emaitzak ezberdinak dira eta. Laugarren ikasleari dagokionez, hitz guztiak dakizki orain eta gainera, aurretiaz gertatu ez bezala, euskalkiak berezko dituen hitz gehiago erabiltzen ditu (aurretiaz %30,77 eta orain %60). Bosgarren eta seigarren haurren kasuan ez dakizkiten hitzen kopuruak nabarmen egin du behera (batz bestean %50etik %24,17ra) eta euskalkiak berezko dituen hitz gehiago erabiltzen dute (batz bestean %33,33tik %43,33ra). Hala ere, hitz gehiago esaten dituzte hirurek bai euskalkian (batz bestean %32,48tik %48,89era) eta baita euskara batuan ere (batz bestean %31,62tik %35ra). Beraz, euskararen erabilera hazi egin da, bereziki euskalkiarena. Hau da, H_1 , H_2 hipotesiak bete dira eta $H_{2,2}$ hipotesiaren kasuan, ipuina irakurri aurretik bizkaierazko hiztegia eta egiturak erabiltzen bazituzten ere horien erabilera hazi egin da. Hortaz, hipotesi hori ere modu partzialean bete egin da.

Ama-hizkuntzatzat gaztelania duten haurren kasuan, jarduera honetan euskara batua erabili dute portzentaje handiagoan (batz bestean %30,56an, euskalkia %23,33an erabiltzen den artean), nahiz eta euskalkiaren erabilera modu leunean bada ere handitu den (batz bestean %13,89tik %23,33ra). Ez dakizkiten hitzen kopuruari dagokionez, eurek dira gutxien dakizkitenak, baina ipuina kontatu ostean nabarmen jaitsi da horren kopurua (batz bestean %52,78tik %33,89ra). Maileguak ere gehien erabiltzen dituzte haur hauek eta horren erabilera ez da askorik jaitsi (batz bestean %13,89tik %12,22ra). Beraz, H_1 , H_2 hipotesiak bete dira eta $H_{2,3}$ hipotesiari dagokionez bizkaieraren erabilera hazi egin da, nahiz eta aurretiaz ere egitura eta hitz batzuk ezagutzen zituzten. Hortaz, partzialki bada ere $H_{2,3}$ hipotesia bete da.

4.4. Ahozko adierazpenerako ataza

Ataza honetan haurrek ipuinari amaiera berria sortu diote. Orokorrean, istorio koherentea sortzeko zailtasuna izan dute haurrek eta ez dute hizkuntzaren aldetik egitura oso aberatsik sortu, nahiz eta garapenik sumatu den. Hala ere, taldean jarrita ikusi da, taldekatze mistoaren ondorioz ama-hizkuntza gaztelania duten umeen kasuan, euskara gehiago erabiltzen saiatu direla. Euskalkiari dagokionez aipagarria da alde batetik,

haurrek erabilitako hizkuntzak ez duela ahalbidetu euskalkia ala euskara batua erabiltzen zeuden jakiterik eta beraz, ez dela modu argian ondorioztatu euskalkidun eta ama-hizkuntza euskara batua duten haurren artean eraginik egon den. Bestetik, nabarmentzekoa da ama-hizkuntzatza euskara batua eta gaztelania duten haurrek zenbait hitz eta egitura erabili dituztela euskalkiak berezko dituenak (adibidez arnoseu edo –gaz deklinabidea).

Beraz, oraindik garatu behar badute ere, esku-hartze honen eraginez haurrek hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna osatu dute eta H_1 eta H_2 hipotesiak bete egin dira.

5. Ondorioak

Maiak eta Larreak (2008) egindako lanean, euskalkidun haurren proportzio kritikoa ematen den ikasgeletan kasuan kasuko euskalkiaren lanketa proposatzen da. Lan hau proposamen hori osatzera dator, euskalkira moldatutako testu literarioak tresnatzat hartu eta lanketa hori praktikan jarritz, horren eragin eta emaitzak neurtzen dituen heinean.

Aipatutako emaitzek argi erakusten dute txosten honen sarreran jasotako hipotesiak osotasunean ez badira ere, betetzen direla. Hau da, *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuinaren irakurketa esanguratsuak haurren euskarazko hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunak garatzen lagundu die, euren ama-hizkuntza edozein dela ere (H_1 eta H_2 hipotesiak). Zehatzago, euskalkira moldatutako ipuinaren irakurketa esanguratsuak eragin ezberdina izan du haurren ama-hizkuntza kontuan izanda. Euskalkidun haurren kasuan, euskalkia erabili dute hasieratik eta egitura berriak ikasi dituzte ($H_{2.1}$). Ama-hizkuntza euskara batua duten haurren kasuan, euskalkiak berezko dituen hitz eta egiturak erabili dituztela ez zen aurreikusi, baina euskalkian irakurritako bertsioak eragin handia izan du euren euskalkiaren jarioan ($H_{2.2}$). Azkenik, ama-hizkuntza gaztelania duten haurren kasuan, zailtasunak izan dituzte irudietan ageri diren kontzeptu eta jarduerak izendatzeko eta maileguak erabili dituzte. Hala ere, ipuina irakurri aurretik euskalkiak berezko dituen zenbait egitura erabili dituzte eta horiek areagotu egin dira ondoren ($H_{2.3}$). Hortaz, H_1 , H_2 eta $H_{2.1}$ hipotesiak bete egin dira osotasunean eta $H_{2.2}$ eta $H_{2.3}$ hipotesiak, ordea, ez dira osorik bete, ama-hizkuntza euskara batua eta gaztelania zuten haurren kasuan irakurketa esanguratsua egin aurretik bizkaierazko hiztegia eta egiturak erabiltzen zituztelako. Hala ere, euren euskalkiaren jarioa garatu dute.

Hipotesiak bete diren arren, lanak zenbait muga ditu. Hasteko, jarduerak egiteko erabili diren irudietan ageri diren kontzeptuetako batzuk ez dira argiak izan haur horien garapen mailarako eta horrek emaitzetan eragin ahal izan du. Gainera, ikasgelak eta haurrek eskaintzen zuten aukera oso mugatua izan da, izan ere, ez da batez ere ama-hizkuntza batua eta gaztelania dutenen artean hitz asko egiten duen haurrik egon eta horrek emaitzak bideratu ditu, batez ere umeak askatasun handiagoz komunikatu zitezkeen jardueretan (ipuinaren sekuentziari buruzko hipotesiak sortzeko jarduera eta ipuinaren amaiera asmatzeko jarduera).

Muga horiek beharrezko egiten dute etorkizunean esku-hartze eta ikerketa hau beste ikastetxe batzuetako taldeekin egitea. Horren helburua litzateke lortutako emaitzetan herri, ikastetxe eta ikastalde horretan dagoen hizkuntza-errealitateak duen eragina zehaztea eta azken finean, norbere komunikazio-gaitasunaren garapenean euskalkiaren erabilerak duen garrantzia azpimarratzea. Haur Hezkuntzako curriculumak zehazten du euskalkiarekiko interesa pizteko eta hori begirunez begiratzeko beharra, komunikazio-gaitasunaren garapenean duen papera nabarmenduz. Ondorioz, hezkuntzari ere badagokio euskalkiaren lanketa sustatzea garapen hori errazteko.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
- Aizpurua, L., Beaskoetxea, U., Karrillo, J. eta Iruskietak, M. (argitaratzeke). Ipuinetako pertsonaiak ezaugarritzeko komunikazio estrategiak: irakaslearentzako gida xumea. *Uztaro*.
- Amestoy, K. eta Martinez B. (1992). *Behin bazen*. Donostia: Elkar.
- Arejita, A. (2002). *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Arejita, A. (2005). *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Bigarren pausuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I. Gandarias, L. eta Iglesias, A. (2015). Euskararen azentuera: hizkera tradizioaletatik euskara estandarera. *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua, 71-95.
- Díaz, G. (2016). *El profesor de lenguas/IX: Competencia metodológica para la enseñanza y el aprendizaje- Principales tendencias metodológicas, enfoques y métodos contemporáneos*. EHUko Udako Ikastaroak.
- Crystal, D. (2003). *English as a Global Language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Elordietak, G. (2008). An overview of theories of the syntax-phonology interface. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo"*, 42(1), 209-286.
- Elordui, A. eta Maia, J. (2002). Eskola eta dialektoak: irakaskuntzan gertatzen diren arazoak eta irtenbideak. *Revista Psicodidáctica*, 13, 105-116.
- Gaminde, I. (2002). Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan. *Euskalingua*, 1, 4-14.
- Garate, G. (1996). Bizkaiera eta Gipuzkera. *Jakin*, 92, 89-103.
- García-Arriola, E.A. eta Iruskietak, M. (2016). Intenziozko irakurketa ozena: lehen urratsak. *Tantak*, 28(2), 85-110.
- Hymes, D.H. (1972). "On communicative competence". Pride, J.B., Holmes, J. en *Sociolinguistics: selected readings*-tik hartua. Harmondsworth: Penguin. pp. 269-293.
- Maia, J. (2001). Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irakaskuntzan. *Revista Psicodidáctica*, 11-12, 239-254.
- Maia, J. eta Larrea, K. (2008). *Euskara batua eta euskalkiak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan*. UPV/EHUko ikasmaterialen sare-argitalpenak. 2017-10-28 hartuta, hemendik: <https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/euskara-batua-eta-euskalkiak-eskolan>
- Mungia Ikastetxeak (2012). *Mungialdeko berbak*. Mungia: Mungia Udala. 2017-10-28an hartuta, hemendik: <http://www.mungia.org/documents/10965/b435453d-9b5f-47f3-85a8-a21793d77a97>
- Mungia Udala eta Emun Zerbitzuak (2017). *Euskara Foroak: Euskararen Plan Estrategikoa 2018-2022*. 2018-01-14an hartuta, hemendik: <http://www.mungia.eus/documents/10965/2ac3ac3b-bc84-4f60-8cdf-a5c5bb3aa635>
- Murua, M. (2010). *Martin Txiki eta Basajaunak*. Donostia: Elkar.
- Quinto, B. (2005). *Los talleres en educación infantil. Espacios de crecimiento*. Barcelona: Graó.
- Sánchez-Cano, M. (2001). Las estrategias educativas de iteración verbal en el contexto educativo, in *Aprendiendo a hablar con ayuda*. Lleida: Milenio.

- Segura, M. (2005). El ambiente y la disciplina escolar desde el conductismo y el constructivismo. *Actualidades Investigativas en Educación*, 5, 1-18.
- Spielmann, G. (2013). La compétence communicative les situations d'utilisation. *Les essentiels. Apprendre et enseigner*. 2018-02-25an hartuta, hemendik: <http://faculty.georgetown.edu/spielmag/docs/FLE/competence.htm#haut>
- Zuazo, K. eta Goiti, U. (2017). *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko Euskara*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.